2012-III-06
Número **362.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

# astekaria

## EDITORIALA

### Aro berria

Izaera gatazkatsua du lan harremanen munduak, eta bereziki negoziazio kolektiboaren inguruko munduak. Interes ezberdinen arteko negoziazioa da eta makina aldiz interesak kontrajarriak izanik, gatazkak sortzen dira. Etengabeko tirabira horretan, langilearen interesak dira ahulen abiatzen direnak negoziazioan. Hartara, desoreka hori berdindu nahian, duela urte batzuk arte lan arautegi ezberdinek babes puntu bat ematen zioten produkzio katean ahulenari, langileei alegia.

Azken urteotan, ordea, oreka galdu da eta enpresarien aldeko apustua nabarmendu da. Esan ohi dugun moduan, politika patronalaren menpe jartzeak aginte osoa enpresarien eskuetan lagatzea ekarri du, hauek nahierara menderatzeko langileak. Azken erreformak horixe bera dakar: malgutasuna, kaleratzeak, soldatak behera botatzea... denak enpresariaren mesedetan. Eskubideen gainbeherako sasoi honetan enpresariak ere konturatu dira dena bere alde jarria dagoela eta hortaz baliatzen ari dira. Are larriagoa da langileak beren eskubideen defentsan erabilitako baliabideen aurrean, enpresariak modu zikinean aritzea. Acha garraiotako enpresan gertaturikoa horren adierazgarria da. Aro berrian gaude eta, berea defendatzeagatik, sindikatua eta bere militanteak kriminalizatzeko makina saiakera ezagutuko ditugu.

Lan harremanen eremuan desoreka itzela dagoela aipatu dugu. Beste ikuspegitik begiratuta, segurtasun indarrek ontzat hartu behar al dituzte edozein motatako funtsik gabeko salaketa? Noiz ikusi dugu enpresariak hauteskundeetan ordezkariak aurkeztea galarazten duenean –edo horregatik langileak kaleratzen dituztenean– segurtasun indarrak langileen defentsan irteten eta enpresariaren jarrera zigortzen?

Horrelako egoeren aurrean zuhurtziaz jokatu behar dugu. Baina honek ez gaitu eraman behar kikiltzera eta atzera egitera. Asko dugu jokoan eta elkarrekin, kolektiboki, ekin behar diogu aurre. Langileon indarra talde lanean dago eta hori da sendotu beharreko ezinbesteko lana.



**La pasada semana, 11 de las 12 comarcales de ELA celebraron multitudinarias reuniones de delegados/as para preparar la huelga general del 29 de marzo**

# PREPARÁNDONOS PARA PARARLES

Centenares de delegados/as y cuadros de ELA han tomado parte los días 1 y 2 de marzo en las numerosas y multitudinarias reuniones que han tenido lugar en todas las comarcales, excepto en la de Vitoria-Gasteiz, que será el próximo día 12, en el Centro Cívico Europa. El objetivo, armarse ideológicamente cara a la huelga general del 29 de marzo. Una huelga que se espera tenga un seguimiento masivo vista la gran participación ciudadana en la manifestación del pasado 25 de febrero –más de 20.000 personas abarrotaron la Gran Vía bilbaína para protestar contra los recortes– y la motivación de nuestra gente. Una motivación que va a llegar hasta el último rincón para explicar lo que está pasando y animar a pasar a la acción contra unos gobiernos y una patronal que tienen como objetivo estratégico acabar con la defensa colectiva de la clase trabajadora y sus derechos.

En las reuniones de delegados/as se ha realizado un amplio análisis de la coyuntura económica y socio-laboral, tanto en Hego Euskal Herria como en el Estado, así como de las devastadoras consecuencias para la clase trabajadora de la reforma laboral y de negociación colectiva aprobada recientemente, último capítulo de una agenda durísima de recortes contra los derechos laborales y sociales.

En este sentido, se ha puesto en evidencia la necesidad de hacer un gran esfuerzo pedagógico e informativo en empresas y sociedad para hacer frente a las mentiras y manipulación que intentan ocultar el saqueo que está sufriendo la gente, con total cobertura política. "Los medios de comunicación, casi sin excepción, son voceros de la inmensa manipulación y grandes mentiras del poder. A los recortes les llaman *ajustes*, a la explotación *flexibilidad*... A todo eso hay que unirle la ocultación de información básica para que la sociedad pueda valorar la magnitud del saqueo que la política consiente hacer al capital, a la Banca y a la Gran Empresa".




**La asamblea y posterior manifestación de Iruñea, una de las más numerosas. En total casi un millar de personas participaron en la movilización.**

*Sigue en la página 2*

**Gizarte eragile ugarik bat egin dute martxoaren 29an Hego Euskal Herrian deitutako greba orokorrarekin**

# "JENDEAREN HASERREA KALERA ERAMAN BEHAR DUGU M-29AN"

Martxoaren 5ean alor ezberdinetako 20 gizarte eragilek euren babesa eta atxikimendua eman zioten ELA, LAB, ESK, EILAS, CGT, EHNE eta Hiru sindikatuek martxoaren 29rako deitutako greba orokorrari. Gizarte eragile guztiak bat etorri ziren lan erreforma erretiratzeko eskatzeko orduan, helburu bat eta bakarra duelako: lehentasuna enpresen etekinei ematea eta gutxiengo bat aberastea, herritar gehienak txirotzearen truke. Greba orokorra deitzen duten sindikatuek eta bera babesten duten gizarte-eragileek argi utzi nahi izan zuten ez direla izango inposatzen ari diren murrizketen laguntzaile, eta horretarako greba orokorra babestearen garrantzia azpimarratu zuten. *Astekaria* honen azken orrialdean martxoaren 5ean aurkeztu zuten txostena dago irakurgai. Gaztelerazko bertsioa, berriz, web atalean dago.



Viene de la página 1



*En la imagen la reunión de delegados y delagadas de Eskumaldea, donde se hizo especial mención a las y los trabajadores de Deman.*

Se ha resaltado, también, la importancia del momento que vivimos y la necesidad de tener perspectiva. "Saber unas pocas cosas, saber qué está en juego, ordenar esas ideas y que nos lleven a la acción. ELA va a poner todo de su parte para que ese trabajo imprescindible lo podamos hacer bien, para que nuestra gente, vosotros y vosotras, estéis en condiciones de ser la voz de un sindicato comprometido. Personas conscientes que adquieren compromiso, personas a las que no nos da igual lo que sucede. Militantes capaces de dar la cara por un proyecto sindical. Entre otras cosas, porque nuestra gente solo tiene el sindicato para defenderse".

*Iragan astean ELAk delegatuen asanbladak egin zituen hamaika eskualdetan; bilera guztietan jendetza bildu zen*

## ¿DE QUÉ TIENEN QUE HABLAR LOS DELEGADOS DE ELA?

Tienen que explicar que el tema de la distribución de la riqueza ha desaparecido de la agenda política de quienes gobiernan. Que Europa es un desastre democrático. El agujero negro de la Banca, a la que se ha dado un millón de euros en tres meses al 1% de interés. Que el déficit público lo crean las propias administraciones, con sus decisiones -no tiene origen en el gasto social- y lo mantienen alto artificialmente para asegurar que se hacen las reformas que interesan al capital.

Hay que explicar que el objetivo estratégico del poder en estos momentos es imponer reformas y recortes, y eliminar todo lo que represente "defensa colectiva". Que la fiscalidad sigue siendo un tema tabú y que los ricos no pagan impuestos y no quieren que eso cambie.

Más centrados en la huelga general, los delegados/as de ELA deben explicar por qué no vamos con CCOO y UGT, más allá, si es el caso, de la coincidencia del día. "Tenemos que ser capaces de explicar que la huelga no la hacemos para que cierto sindicalismo se instale y dé cobertura a estas políticas que nos llevan a la ruina. La hacemos para denunciar los recortes y las reformas, para decir alto y claro que el "diálogo social" es un teatro, para defender nuestras propuestas alternativas y ganar espacio social y, para –es muy importante– trasladar oxígeno a las luchas sindicales y sociales. ELA no es un subsistema del sindicalismo español. Y no es un problema "identitario", es simple y llanamente un problema de modelo sindical", se dijo.

## EN NUESTRAS MANOS

Por otra parte, se insistió, y mucho, en nuestra alternativa, en la necesidad de hacer bien lo que depende de nosotros. "De nosotros depende criticar lo que está pasando, organizar, sindicalizar, afiliar y organizar a la afiliación. No tenemos más que el sindicato. Tenemos que ser muy conscientes de que solo habrá posibilidad de negociar en los ámbitos sindicalizados, pero que todos los ámbitos son sindicalizables. A lo largo de los últimos años tenemos un montón de ejemplos de luchas que se han ganado", se remarcó.

Se insistió, asimismo, en que la clave está en la militancia. "Para hacer todo lo que ELA se ha propuesto se necesitan delegados y delegadas conscientes ideológicamente y responsabilizados". También se destacó la necesidad de convertir la calle en lugar público de expresión democrática. "Es nuestro espacio. Y, cuando en la calle nos juntamos muchos y muchas, la moral de la tropa crece".

Finalmente, en las diferentes intervenciones se destacó que pelear por la distribución de la riqueza, por unas condiciones de trabajo dignas, por los servicios públicos no es un sueño. "Es nuestro principal compromiso en la construcción nacional de nuestro país. Y lo vamos a hacer juntos. Ahora, salid a la calle, id a las empresas, explicad lo que está pasando y entre todos pararemos Hego Euskal Herria el 29 de marzo. Porque hay que pararles".

*Orain arte egindako asanblada guztietan agerikoa da langile jendearen haserrea; martxoaren 29a arrakastatsua izango da*

# "GREZIA DA AUSTERITATEAREN ONDORIO LARRIEZ KONTURATZEKO ADIBIDERIK ONENA"




Europako Sindikatuen Konfederazioak deituta otsailaren 29a mobilizazio eguna izan zen Europa osoan zehar. Deialdiari erantzunez ELAk ekitaldia antolatu zuen Bilbon, bertako errealitatea aztertzeaz gain Europak bizi duen abagunearen inguruan hausnartzeko. Otsailaren 29a aukeratu izana ez da kasualitatea; hurrengo egunean Europako Kontseiluko Goi Bilkura zegoen deituta, eta ezinbestekoa zen langile jendea ozen esatea inposatzen ari diren politikak errotik aldatu behar direla.

Nazioarteko arduradun Laura Gonzalez de Txabarri arduratu zen ekitaldira hurbildu ziren lagunei ELAk egiten duen gogoeta azaltzeaz. "Europaren eraikitze prozesuaren orientazio neoliberala ez da berria. Hasiera hasieratik merkatuen logikak eta finantza-munduaren botereak dominatu du Europako politika. Aspaldi salatu genuen joera hori. Esaterako Europako Tratatuarekiko gure jarrera kritikoa azaldu genuenean argi esan genuen prozesu hau herriei eta langileei bizkarra emanda egiten ari zirela".

"Egungo egoerak orduan esandakoa berretsi besterik ez du egiten. Krisi sakon baten barnean sartuta gaude, aurpegi anitzeko krisia: ekonomikoa, politiko, soziala, ekologikoa... Eta, hain justu, makina bat aldiz salatu ditugun politika horiek dira krisi hori eragin dutenak. Sistema kapitalistak eragindako krisia sufritzen ari gara. Baina, sistema hau zalantzan jarri eta bestelako politikak bilatu beharrean, Europako Batasuneko instituzioek eta gobernuek krisia langileok ordaindu-araztea bideratzen ari diren politikak ezartzen ari dira".

*"Están utilizando a Grecia para advertir al resto de lo que nos viene si no nos portamos bien y cumplimos con las medidas que nos están imponiendo"*

*"Intentan aprovechar la crisis que ellos han provocado para, medida tras medida y reforma tras reforma, empobrecernos y acabar con nuestros derechos"*

## GREZIAREKIN ELKARTASUNA

Zalantzarik gabe, Grezia da Europan abagune gogorrenetakoa bizi duen herrialdea. Gainera, Europatik inposatu zaizkion politikek egoera larriagotu besterik ez dute egin. Hori dela-eta, Greziak aipamen berezia izan zuen otsailaren 29ko ekitaldian. "ELAk bere elkartasuna helarazi nahi dio Greziako herriari. Bertan gertatzen ari dena guztiz onartezina da, eta hango langileen mobilizazioak guztiz bidezkoak eta beharrezkoak direla uste dugu".

Gonzalez de Txabarrik Greziaren egoeraren azterketa sakona egin zuen, eta bertan gertatutakoaz ikasgai garrantzitsuak ikasi behar ditugula gaineratu zuen. "Soldatak, sektore publiko zein pribatuan, %20 gutxitu dira batez beste; langabezia bikoiztu egin da; hitzarmen kolektiboak indarrik gabe utzi dira; 1.000 eurotik gorako pentsioak %20 murriztu dira; osasun zerbitzuetako, hezkuntzarako eta kulturarako aurrekontuak itxurarik gabe murriztu dira; ondasun publiko gehienak pribatizatu dituzte... Hau guztiaren ondorioz, pobrezia itxurarik gabe hasten ari da: desesperazioa, suizidioak...".

# ELA DEFIENDE LA INOCENCIA DE SUS CUATRO MILITANTES DETENIDOS POR LA GUARDIA CIVIL ACUSADOS DE "EXTORSIÓN"




*En la imagen responsables de ELA ante el Juzgado de Guardia de Bilbo el domingo 4 de marzo, mientras declaraban nuestros cuatro compañeros ante el juez.*

El viernes 2 de marzo por la tarde se producía un hecho que nos retrotraía a los peores tiempos del franquismo. La Guardia Civil detenía en el local de ELA en Basauri a cuatro militantes de nuestra organización acusados de un supuesto delito de extorsión. La detención se produjo en el momento en el que los propietarios de Tomás Acha SL, empresa situada en Llodio, hacían entrega, supuestamente, de la cantidad que adeudaban a los trabajadores de su empresa, para que ELA se la hiciese llegar. En ese momento, la Guardia Civil, que acudió a petición del empresario a nuestro local ocultando su identidad, procedió a detener a los cuatro militantes de ELA bajo la acusación de un delito de extorsión. Esos cuatro militantes han permanecido en la Comandancia de la Guardia Civil de Gasteiz desde el viernes por la tarde hasta el domingo por la mañana, cuando fueron trasladados al Juzgado de Bilbao. Por la tarde, tras declarar ante el juez, fueron puestos en libertad.

ELA, en la radical confianza que le merecen los militantes detenidos y su actuación, ha puesto a su disposición un equipo de abogados penalistas para su defensa jurídica con el objeto de restablecer su buen nombre y su derecho al honor –el de esos militantes y el del propio sindicato– y para estudiar, si procede, una acción por denuncia falsa contra la empresa Tomás Acha S.L.

Asimismo, el sindicato ha mostrado su perplejidad y asombro por una actuación tan desproporcionada como injusta. En esta línea, ELA ha denunciado a la empresa por su ilegítimo comportamiento, así como por provocar la intervención de la Guardia Civil, en lo que constituye un claro intento de criminalizar la actuación del sindicato en su defensa de los trabajadores/as de Acha S.L. y de sus militantes.

## CONFLICTO EXCLUSIVAMENTE SOCIOLABORAL

La empresa Tomas Acha S.L. arrastra desde hace tiempo un conflicto laboral que tiene su origen en el impago de salarios por parte de la empresa a sus trabajadores. Con el objeto de buscar una solución al mismo, los trabajadores y su sindicato –ELA– han instado diversas acciones: la actuación del PRECO y de la Inspección de Trabajo de Araba, la celebración de una huelga... ELA –como es normal y habitual, y coherente con su línea sindical– ha prestado durante todo el conflicto apoyo incondicional a los trabajadores/as.

La empresa presentó un ERE con 26 despidos. Finalmente, y tras duras negociaciones, se alcanzó un acuerdo por el que 21 trabajadores/as aceptaban la rescisión voluntaria de sus contratos a cambio de una indemnización. Cantidad que iba a entregar el empresario a los representantes de ELA, que fueron detenidos, precisamente, cuando la estaban comprobando.

**Sindicatos, comerciantes y asociaciones de consumidores han convocado una manifestación para este domingo 11 de marzo en Bilbao**

# CONTRA LA APERTURA EN DOMINGOS Y FESTIVOS




ELA, LAB, CCOO y UGT, la Asociacion de Comerciantes Euskal Dendak y la Organizacion de Consumidores han convocado una manifestación para el domingo 11 de marzo bajo el lema *Jaietan denok Jai. Por un consumo sostenible y en defensa del empleo en el pequeno comercio*. Una movilización que servirá para poner en evidencia las mentiras que sobre la apertura de los comercios en domingos y festivos han lanzado algunos responsables políticos los últimos meses

ELA anima a toda la militancia a participar en esta manifestación, que comenzará a las 12:00 en Moyua.

# 29 DE MARZO: LAS MUJERES TAMBIÉN, ¡A LA HUELGA!

ELA saldrá este 8 de marzo –Día Internacional de las Mujeres– a la calle reivindicando el derecho a una vida digna, enfrentando los recortes, y preparándonos para la huelga general y las movilizaciones sociales en camino. Para ello nuestro sindicato ha organizado un acto en el frontón La Esperanza de Bilbao, situado en pleno Casco Viejo. En el acto tomarán parte diferentes mujeres que nos contarán sus experiencias y vivencias en el mundo laboral desde el punto de vista de género.

Tras el acto, que comenzará a las 10:00, una manifestación recorrerá las principales calles del Casco Viejo. ELA quiere unir la lucha del 8 de Marzo con la de las trabajadoras del comercio, que están librando una dura batalla en favor del derecho al descanso y por otro modelo social más justo y equitativo.




## • Konecta BTO, Iberdrolaren azpikontrata, lan erreformaz baliatu da langileak kaleratzeko

Konecta BTO enpresa, Iberdrolaren bezeroak artatzeko zerbitzuaren azpikontrata, PP Gobernuaren azken lan-erreformaz baliatu da 18 emakume langile kolokan uzteko. Haietako 11 kaleratu dituzte, Langileen Estatutuaren 52 artikuluaren gaixotasunagatiko lan-absentismoa aplikatuz; gainerako zazpiei Bartzelonara hilabeteko epean aldatzea proposatu diete; lekualdatzeari uko egitekotan, kalera bidaltzeko mehatxua egin du enpresak.

## • En recuerdo de las víctimas del 3 de Marzo en Gasteiz

Miles de personas participaron el 3 de marzo en la manifestación convocada por diversas organizaciones sindicales y sociales en recuerdo a los cinco trabajadores muertos y de las decenas de heridos que causó la intervención policial del 3 de marzo de 1976 para disolver una asamblea de trabajadores.

Los convocantes manifestaron que existen muchas similitudes entre el 3 de marzo de 1976 y la situación actual, porque hace 36 años los trabajadores reunidos en asamblea en Gasteiz luchaban por conseguir derechos laborales, sociales y políticos, y ahora, la sociedad vasca se enfrenta a una reforma laboral que supone una de las mayores agresiones hacia los derechos laborales y sociales.

## • Garoñaren itxiera exijitzeko manifestazioa

Japongo Fukusima hirian izandako hondamendi nuklearraren lehen urtemuga dela-eta, hainbat sindikatuk –tartean ELA–, alderdi politikok eta gizarte-eragileek manifestazioa deitu dute larunbaterako –martxoak 10– Bilbon. Manifestazioaren leloa Garoña, itxi orain. Fukushima gehiagorik ez izango da, eta hiru helburu nagusi ditu: Japoniako herriari elkartasuna adieraztea, Garoña lehenbailehen itxi dezatela exijitzea eta energia-nuklearraren arriskuez ohartaraztea. Manifestazioa 17:30tan hasiko da Jesusen Bihotzean, eta Iberdrolak Bilbon duen egoitzaren aurrean amaituko da, Euskadi Plazan.

## • Fallece el histórico militante de ELA Ramón Agesta

El 4 de marzo falleción en Irún Ramón Agesta, histórico militante de nuestro sindicato. Agesta tenía 98 años y era afiliado a ELA desde hace, nada más y nada menos, 80 años. Agesta comenzó su andadura en la Junta Local de ELA en Irun entre los años 1932 y 1934. Tras el golpe de Estado fascista de 1936, Agesta se integró en la movilización popular en su contra y a favor de la democracia, antes de verse abocado al exilio tras la consolidación del golpe.

astekaria

# MURRIZKETA, ERREFORMA ETA INPOSIZIOEI AURRE EGIN. M-29AN GREBARA GOAZ. ESKUBIDE LABORAL ETA SOZIALEN ALDE



**Hona hemen martxoaren 29ko greba orokorra deitzen eta babesten duten sindikatu eta gizarte eragileek martxoaren 5ean aurkeztu zuten dokumentua. Gaztelerazko testua web atalean ere badago.**

Eskubide laboral eta sozialen aurka inoiz ikusi gabeko erasoa ari gara pairatzen. Gobernuek patronalarekin eta botere ekonomikoekin elkar hartuta jokatzen dute. Euren politikak eragindako krisiaz baliatzen ari dira era guztietako murrizketak egiteko. Guztien gainetik helburu bakarra: lehentasuna enpresen etekinei ematea eta gutxiengo bat aberastea, herritar gehienak txirotzearen truke; horretarako hainbat bidetatik jo dute: soldatak jaitsi, enplegua prekarizatu, langabezia hedatu, gizarte-prestazioak, pentsioak eta gastu publikoa murriztu (osasungintzan, hezkuntzan edo gizarte-zerbitzuetan).

Erreforma laborala eta negoziazio kolektiboarena, Raxoiren gobernuak dekretuz erabakia, taxu bereko beste eraso bat dugu, eta aurreko urteetan onartutako erreformen ildotik dator. Baina ez da edozein urrats, "oso oldarkorra" izan baita, gobernu bereko kide batek adierazi zuen moduan. Erreforma honek lan-harremanak erabat desorekatzen ditu. Enpresarioari askoz botere handiagoa eta erabakitzeko aukera zabalagoa ematen dio, eta langileak ahultzen ditu. Erreformaren ezaugarriak:

- **Kaleratzea erraztu eta merkatzen du.** Hau egundoko atzerapausoa da, kaleratze bat bidezkoa dela jotzeko zergatiak gehitzen baititu. Kaleratze bidegabeagatiko kalteordaina murrizten du, tramitazio-soldatak ezabatzen ditu, arlo publikoan kaleratze objektiboa ahalbidetzen du eta EEEtarako baimen administratiboa ezabatzen du.
- **Negoziazio eskubidea ahultzen du.** Hitzarmen kolektibo bat bi urteko epean berritzen ez bada, bertan behera geratzen da. Erabateko lehentasuna ematen zaio enpresa-hitzarmenari, sektore-hitzarmenekiko, eta enpresei hitzarmena aplikatzeko salbuespena gauzatzeko aukera errazten zaie.
- **Malgutasun laborala enpresaren gustora gehitzen da.** Aurrerantzean errazagoak izango dira mugikortasun funtzionala, geografikoa eta lan-baldintzen funtsezko aldaketak.
- **Kontratuak are prekarioagoak izango dira.** Ez da etenik izango enpresentzako diru-laguntzei dagokienez; erreformak kontratu prekario berriak sortzen ditu, lehen urtean kaleratzea debaldekoa delarik, eta lanaldi partzialeko kontratua aldatu egiten du, malguagoa izan dadin.
- **Neurriok guztiok eragin larria dute enpleguari eta gizarteko egoerari dagokionez okerren dauden kolektiboengan**.

Erreformaren helburua da langileriak edozein lan-baldintza onar dezan derrigortzea, baldintzak gero eta okerragoak direlarik. Lehengo lepotik burua. Aurrez egin izan diren erreforma eta murrizketek prestatu dute bidea: UGTk eta CCOOek pentsioak jaisteko eta erretiro adina 67 urtera atzeratzeko sinatu zuten akordioa, 2010eko erreforma laborala, 2011ko negoziazio kolektiboaren erreforma, arlo publikoaren aurka hartutako erabakiak edota urtarrilaren amaieran CEOErekin itxitako akordioa, non aipatutako bi sindikatu horiek onartzen duten erosteko ahalmena galtzea eta malgutasun laborala areagotzea. Gure organizazioek ez dute onartzen eskubideak txiki-txiki eginda uztea ezinbestekoa denik. Ez gara murrizketen laguntzaile izango. Ez dugu bake sozialik emango. Ez gara bakerik ematen ari.

Behin eta berriz salatu izan ditugu erakundeak ezartzen ari diren politikak. EAEko eta Nafarroako administrazioek egin dituzten gizarte-gastuko murrizketen aurka plazaratu gara. Zerbitzu publikoei ekiten diete, batik bat hezkuntzari, osasungintzari eta gizarte-zerbitzuei. Aurrekontuak moztu egin dira, eta publikoa dena 2005eko mailaraino jaitsi da. Bereziki larriak eta esanguratsuak dira gizarte-prestazioen murrizketak, hamarna milaka pertsona babesik gabe uzten baitituzte (Hego Euskal Herrian 200.000tik gora lagun dago lanik gabe, 55.000 familiak behar dute diru-sarrerak bermatzeko errenta EAEn, eta 18.000k, oinarrizko errenta Nafarroan). Prestazioak gutxitzeaz gainera, pertsona asko, batez ere etorkinak, prestazioak jasotzeko esubiderik gabe gelditu dira. Gainera, prestazio hauek jasotzen dituztenak kriminalizatu egiten dituzte eta langabeei egozten zaie euren egoeraren errua.

Zerga-politika ere salatu dugu. Onurak ematen zaizkie gehien dutenei, eta ez dago borondaterik iruzur fiskalari jazartzeko. Zerga-politika hau injustua, atzerakoia eta gizartearen parte hartzerik gabe erabakia da.

Garatzen ari diren politikak bidegabeak eta antidemokratikoak dira. Ez gaituzte krisitik aterako; aitzitik, krisia larriagotu egingo dute: langabezia, pobrezia eta gizarte-bazterketa hedatzen ari dira politika horien ondorioz. Erabateko norabide aldaketa egin behar da:

- Raxoiren erreforma laborala eta negoziazio kolektiboarena erretiratu eta aurreko erreformak ere indargabetu. Eskubide laboralak gehitu eta negoziazio kolektiborako eskubidea babestu. Enplegu prekarioa desagerrarazi egin behar da.
- Aberastasunaren banaketa bidezkoa lortze aldera, langileen erosteko ahalmena hobetu beharra dago.
- Enplegua sortzeko politikak bultzatu, lanaldia murriztuz, gizarte-gastua gehituz, eskubide sozialak aintzat hartuz eta zerbitzu publikoak hobetuz.
- Lan-harremanen eta gizarte-babeseko euskal esparrua behar da, arauak emateko ahalmen betearekin, eskubide laboral eta sozialen aitortzan aurrera egin dadin.
- Gizarte-prestazioei ezarritako murrizketak, lege zein aurrekontuei dagokionez, indargabetu. Zenbatekoak hobetu behar dira.
- Gizarte-zerbitzu sare bat eratu, publikoa, unibertsala eta aurrekontu publikoek finantzatutakoa, menpekotasun egoeran dauden pertsona guztiei estaldura bermatuko diena.
- Zerga-politika bidezko eta progresiboa ezarri, azken hamarkadetako erreformak bertan behera utzi eta aberastasunaren banaketa bidekoa bermatuko duena. Iruzur fiskalaren kontrako benetako borroka.
- Eragile sozial eta sindikalen zinez parte hartzeko eskubidea bermatu, politika publikoen definizio eta ebaluazioa egiterakoan.
- Aukera-berdintasunerako politikak taxutu. Lana eta bizitza pertsonala kontziliatzeko benetako politikak. Produkzio- eta ugaltze-lanaren banaketa.

Egoera latza da. Ezetz esan behar diogu lege laboralen eta negoziazio kolektiboaren erreformari, eta eskubide laboral zein sozialak hobetzea eskatu behar dugu; kalitatezko zerbitzu publikoak behar ditugu. Beharrizan honetan bat gatoz hainbat antolakunde sindikal eta sozial, eta sinetsita gaude mobilizazio erantzun zabala beharrezkoa dela. Horregatik egin dugu Hego Euskal Herrian martxoaren 29rako greba orokor deialdia.

Greba orokor hau erasoei emandako erantzuna da, eta politikak alda daitezen aldarria izan nahi du. Mugimendu sindikal eta sozialak erantzuna ematen die eta deiadarra botatzen du Europan zehar erabakitzen ari diren politiken aurka. **Martxoaren 29an grebara goaz. Gure eskubidea ez ezik, gure erantzukizuna da.**

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207